



**hazizhazi.org**

HEZKUNTZA, HAZIERA ETA BIDELAGUNTZA SAREA  
RED DE EDUCACIÓN, CRIANZA Y ACOMPAÑAMIENTO

hazizhazielkartea@gmail.com  
www.facebook.com/hazizhazielkartea

PRENTSA OHARRA

# Haziz Hazi hezkuntza sareak Jokoaren Nazioarteko Eguna ospatuko du Leioan jolasGUNE jaialdiarekin

GETXO, 2017ko maiatzaren 22a, astelehena

Maiatzaren 28an, Jokoaren Nazioarteko Eguna dela eta, Haziz Hazi hezkuntza, haziera eta bidelaguntza sareak urteroko jolasGUNE jaialdiaren bigarren edizioa egingo du Leioako Artaza parkean, lehenengoak, Ozaetan (Araba) egin zenak, izan zuen arrakasta gogoan hartuta.

JolasGUNE jaialdi irekia da, nornahirentzat antolatzen baita. Horren bidez Haziz Hazik **aldarrikatzen du jokoak ikaskuntzarako eta garapenerako tresna nagusia dela bizitza osoan**. Jaialdian Haziz Hazi sareko familiak, hezitzaileak eta hezkuntza-proiektuak biltzen dira pertsonen begirune handiagoa dien heziketa bultzatzeko, pertsonen benetako beharrezaneiei eta bakoitzaren erritmo bereziari egokitutako heziketa, hain zuzen ere.

Jaialdian era **askotako jarduerak izango dira, bai txikientzat, bai nagusientzat**: solasaldiak, lantegiak, jokoak, musika, indaba-jana, foodtruck-a, ezusteko batzuk, eta azokatxoak ere bai, inork mugimendu honen inguruko opariren bat eskuratu nahi balu ere.

Jokoaren jaialdi hau, denok atseginean gozatzeko moduko ospakizunaz gainera, **estandarizazioa gaingitu dezakeen hezkuntza-eredua** aldarrikatzeko aukera ere bada; izan ere, lehenetsuna pertsonaren garapen integralean jartzen duen eredua behar dugu, ohiko hezkuntza-sistema goitik behera eraldatu behar dela uste duten familia eta hezitzaile batzuek egiten duten ahalegin handiaren ondoriozko berrikuntzak aintzat hartzen duen eredua.

Azken helburua da aurrera egitea **denetariko proposamenak biltzen eta sustatzen dituen lege-esparru berria lortzeko**, hots, metodo berriak, goraka ari diren proiektuak eta pertsonetara moldatutako ereduak onartzen dituen lege-esparrua.

Haziz Hazi elkartean bildutako familiek, pertsonak eta **EAEko denetariko hezkuntza-proiektu xumeek**, uste dute ezinbestekoa dela **berariazko ereduak sortzea** egungo gizartean aurkitzen diren gabezia eta arazoei aurre egiteko.

**Harremanetarako:** Rubén Méndez (Haziz Haziko presidentea)

Sakelakoa: 656749654 · email: [hazizhazielkartea@gmail.com](mailto:hazizhazielkartea@gmail.com) · Web orria: [www.hazizhazi.org](http://www.hazizhazi.org)

Facebook: <https://www.facebook.com/hazizhazielkartea/>